



7. epigrafea. Hirigintza-baimena ematea

1. Egitate ezargarria:

Tasa honen egitate ezargarria da: Eranskineko tarifetan aipatzen diren hirigintza-zerbitzuak eskaintzeko Udalak burutzen duen jarduera teknikoa eta administratiboa.

2. Subjektu pasiboa eta tributu erantzukizuna

a) Tasa honen subjektu pasiboak dira, zergadun modura, Ordenantza honen zerbitzuak eskatzen, eragiten edo baliatzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua aipatzen dituen pertsona fisikoak eta juridikoak eta entitateak.

b) Lurzoru eta hiri antolamenduari buruzko araudian aurreikusten diren hirigintza-baimenen tasei dagokionez, obretako eraikitzaileak eta kontratistak izango dira zergadunen ordezkari.

c) Tributu-erantzukizunari dagokionez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 40. artikuluan eta hurrengoan ezartzen dena hartuko da kontuan.

3. Tributu kuota

Tributu kuota ateratzeko kontuan hartuko da Ordenantza honen eranskinean aipatzen diren tarifak edo zerga-motak.

4. Sortzapena

Tasa sortu ondoren, ordaindu beharra dator egitate zergagarria osatzen duen udal jarduera hasten den unean bertan. Honela, jarduera hasitzat joko da hirigintza-zerbitzuak eskatzen diren egunean, betiere, eskaria subjektu pasiboak egina bada.


5. Deklarazioa, likidazioa eta dirua sartzea

Hirigintza-zerbitzuren bat eskatzen dutenek, dagokion eskaria aurkeztu behar dute Udaleko Erregistro Orokorrean. Eskarian zehaztu egin behar dute zein eratako hirigintza-zerbitzua nahi duten.

- a) Tasaren likidazioa eta ordainketa organo kudeatzaileak bideratuko du, eta zergadunak edo zerbitzua jasotzen duenak ordainduko behar du.
- b) Edozelan ere, administrazioaren eskubideak bermatzeko, administrazioak likidazioa egin dezake edo ordainketa eskatu dezake behin behineko eskaria erregistratzen den unean bertan, halaxe ezartzen baitu Toki Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 27. artikulua.

I. Tarifak

Kontzeptua		Kuota
1	Erantzukizunpeko adierazpenera derrigortuta dauden obrak edo instalazioak egiteko baimenak ematea, (benetako kostu osoaren gainean).	% 0,67
	Gutxieneko tasa	25,00 €
	1. Exekuzio-aginduen tramitazioa (benetako kostu osoaren arabera).	% 1,31
	Gutxieneko tasa	474,52 €
2	Zehapen-estudioa (eraikitako m ² bakoitzeko)	0,25 €
	Gutxieneko tasa	97,63 €




Kontzeptua		Kuota
3	Hirigintzako partzelazioak eta birpartzelatzeak izapidetzea:	
3.1	Hirigintza partzelazioetarako baimena	
	3.1.a. 250 m ² arte, m ² bakoitzeko	1,58 €
	3.1.b. Gehieneko m ² bakoitzeko	0,11 €
	3.1.c. Gutxieneko tasa	253,64 €
3.2	Birpartzelazio proiektuak	
	3.2.a. Exekuzio unitateko 500 m ² arte, por m ² bakoitzeko	1,99 €
	3.2.b. Gehieneko m ² bakoitzeko	0,26 €
	3.2.c. Gutxieneko tasa	535,23 €
3.3	Zatiketak lurzoru ez urbanizagarrian	
	3.3.a. Zatitutako 1.000 m ² arte, por m ² bakoitzeko	0,46 €
	3.3.b. Gehieneko m ² bakoitzeko	0,01 €
	3.3.c. Gutxieneko tasa	237,03 €
3.4	Desjabetzak parte batek hala eskatuta (balio justuaren arabera)	% 5,46
	3.4.1. Gutxieneko tasa	684,39 €
	3.4.2. Gehieneko tasa	3.421,94 €
3.5	Eraikinei zatiketa horizontala egiteko baimena edo eraikinak finkatan bereizteko baimena.	0,00 €
	3.5.1. Gutxieneko tasa	156,41 €
	3.5.2. Zatiketako parte izango diren etxebizitza bakoitzeko, tasa handituko da.	32,32 €
4	Batek eskatutako aurri-deklarazioa	
	4.1 Batek eskatutako aurri-deklarazioa	920,60 €
	4.2 Ofiziozko aurri-deklarazioa	1.083,62 €
5	Lehen erabilerako baimenak. Obraren azken likidazioaren %	% 0,49
6	Hirigintzako/jarduerarako/irekitzeko baimenen titulartasuna aldaketa	229,26 €
7	Instalazio osagarri bereziak: aire girotua, kamara frigorifikoak, galdera-gelak, erregaien deposituak, X izpiak eta antzekoak	105,97 €
8	Hirigintza-informazio eta kontsultak, ale bakoitzeko.	158,13 €
9	Eduki urbanistiko edo ingurumenekoa duten egiaztagiria ematea, aurreko atalean sartutakoak izan ezik	



Kontzeptua			Kuota
		9.1 Informe teknikoa behar dutenak	37,09 €
		9.2 Informe teknikoa behar ez dutenak	155,04 €
1 0		Zaratak neurtzea (Ikuskapen bakoitzeko)	282,34 €
1 1		Peritajeko informe teknikoa. Informeko	90,35 €
1 2		Proiektudun obra egiteko baimenen egiaztapen administratiboa, baimenduta ez datozenean derrigorrezkoa ez delako.	224,68 €

II. Tarifak aplikatzeko arauak.

1. Baimena tramitatzearen, Udalak obrak onartzeren edo ezartzearen jatorria legeztapen prozesu bat edo exekuzio-agindu bat bada, ordenantza honen arabera, obrari dagokion tasari %50a gehituko zaio.
2. Udalari nahitaez laga beharreko lursailak direnean, titularrek ez dituzte ordaindu beharko Udalari dagozkion banaketak izapidetzeko tasak ez eta hirigintzako partzelazioko eta birpartzelazioko tasak ere.
3. %50eko hobaria izango dute irekiera-baimenetan eta obra-baimenetan langileen seme-alabentzat haurtzaindegiak dituzten enpresak.
4. Obrei dagokien tasaren %50eko hobaria izango dute alokairuan kudeatuko diren Babes Ofizialeko etxebizitzek (Viviendas de Proteccion Publica en regimen de alquiler).
5. Lokalak egokitze obrei dagokien tasaren %50eko hobaria izango dute, legeak ezarritako irisgarritasun neurriak betetzeko derrigortasuna izan ez arren, nahi dutelako betetzen dutenek.
6. %95eko hobaria izango dute lehendik dauden eraikinetan hegaztiak habiak egin ez ditzaten barrerak jarriko diren obretan. Eraikinok interesdunak izan behar dute udalarentzat.
7. Baimen-emakidaren tasaren %60eko hobaria izango dute, **ailegaerraztasunari buruzko araudia betetzeko** auzokideen erkidegoek jartzen dituzten igoigaluen obrek.
8. Komertzio edo ostalaritza lokaletako jarduera edota irekitze baimenaren eskualdatzearen gaineko tasaren %100 hobaria izango dute senideen artean egindako titularitate aldaketek. Horretarako jardueran jarraipen bat ikusi behar da kontratua duen pertsonala murriztu gabe (txikipen hori erretiro edo langile autonomoen erregimen berezian sartzeagatik badator hobaria aplikagarria izango da.).
9. Obra-baimenaren gaineko tasaren %90eko hobaria izango dute, jarduera enpresarial berriak hasteko egiten diren egokitze obrak.
10. Eskatutako baimena ukatzen denean eta, betiere, baimena eskatu duen establezimendua ez bada ireki, likidaturiko tasaren %30a itzuliko zaio interesatuari.
11. Zarata neurtzeko eskaeretan, eskaera, 3/1998 legearen arabera udal baimena duen edo behar duen jarduera batetan sorrarazten diren zaratangatik egiten bada, dohainik izango da.
12. %50eko hobaria izango dute ur beroan, berogailuan edo/eta argindarrean eguzki-sistemak, biomasa edo/eta geotermikoak sartzen dituzten zaharberritze, mantenu,



gaurkotze eta egokitze-lanek. Nolanahi ere, hobari hau ez zaie aplikatuko eraikuntza-
araudiak, derrigorrez, halaxe egitea eskatzen dien instalazioei.

Lehendik emandako baimen bati uko eginez gero edo baimen hau iraungita badago, berdin-
berdin ordaindu beharko da. Halaber, eskatzaileak atzera egingo balu hasitako prozeduran,
eta atzera egite hau espresuki adieraziko balitz eta txosten teknikoa egin aurretik aurkeztuko
balitz, ordaindu beharrekoa %50a murriztuko litzateke.